

ALTERNATIBAK MARTXAN JARRI!
ERRAUSKETARIK EZ!

Azken aldian pausu asko ematen ari dira Gipuzkoan zabor kudeaketaren inguruan. Gaur egun, 2 ildo nagusi daude; batetik Errausketaren aurkako herri plataformak proposatzen diharduguna, San Markos eta Debagoieneko mankomunitateak babestu dutena eta Europako zuzentarauei jarraituz zaborra gaika biltzeko ahalegina egiten duena (batez ere ia zaborraren erdia osatzen duen materia organikoa). Bestetik mugarik gabeko kontsumismoa eta herritarren kontzientzi eza bultzatzen dituen erraustegia, ondorio sanitario, sozial, ekologiko, eta ekonomiko kaltegarriak sortuko lituzkeena. Guk defenditzen dugun eredia, atez ateko bilketa, Europan milioika bizilagunen zaborra biltzeko erabiltzen dute, duela hamarkadak ezarri eta azkenaldian zabaltze handia izan duena, Katalunyako sistema kasu. Tipologia ezberdinetako etxebizitzetan arrakastaz ezarri da, bai dorre zein sakabanatutako etxeetan, eta 100.000 biztanletik gorako zenbait hiri handietan ere. Atez ateko bilketa Europako aginduei zorrotz jarraitu eta ekonomikoki merkeagoa den sistema da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta dagozkion erakundeek ere sistema honi behar duen babesa ematea eskatzen dugu, batez ere ekonomikoa, sistema bakar bezala organikoa erreusarekin bilduta eta ondoren erraustegira eramatea bultzatzen duten honetan. Arazoa konpondu ordez, gainera, zaborra gainera datorkie eta ikusi dugunez, Bizkaira eramateko hitzarmena egin behar izan dute. Txingudin egin nahi zuten erraustegia ere epaitegiek baliogabetu dute, ingurumen eragin estudioa egin gabe zutelako. Ez dugu ahaztu behar konpostatzen den zaborraren zati organikoa zabor izateari uzten diola, lehengai bihurtuz. Honek ez du ez zabortegei ezta erraustegiarik behar ere, eta epe motzean ezarri daitekeen sistema da.

Honez gain, Añorgan dagoen Cementos Rezola enpresari hondakinak eta beste hainbat produktu erretzeko emandako baimena salatu nahi dugu, orain erre dezaketenaren zerrenda askoz gai gehiagorekin zabaldu dutenean. Rezolakoak ez dio errauskailu ezkutatu bat izateari uzten, bere kutsadura Añorgatarrek aspalditik pairatzen dutena (baimendutako mailetatik gora) eta alboan gaudenok, Antiguotarrok esaterako, era berean pairatzen duguna.

Etiket hasiz, kontzientzia landuz, ekin diezaiozun alternatibak aldarrikatu eta sustatzeari!

Antiguok Errauskailuari? Uko!